Gnaturaldia
Zinema

Gnat Zinema

II. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

II MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

MAIATZA
MAYO
2022 10-20

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

Trienekens

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Zinema eta Natura oso ondo funtzionatzen duen binomio bat da. Medio zinematografikoak bizitza errealean ia ikusezinak diren natura-alderdi batzuei behatzeko aukera ematen dio ikusleari eta animaliak, landareak eta ekosistemak barrukotasunez ezagutzekoa. Halaber, bizi diren ingurunearen degradazioaren ondorioz sufritzen duten giza komunitateen eta komunitate biologikoen errealitatea erakuts diezaguke. Horrek guztiak formatu zinematografikoa Gnaturaldiaren hedabide gogokoenetako bat bihurtzen du elementu hori jada bere ezaugarrietako bat izateraino.

Bide honetan sakondu nahi dugu, Gipuzkoako herritarrei aukera emanez zinema dokumentaleko ekoizpenik onenetako batzuk ikusteko, **II. Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldian**. Bi aste trinkoan zehar, 10 ekoizpen proiektatuko dira, 17 emanaldiren bidez, zortzi egoitzatan banatuta, eta aurkezpenez lagunduta.

Egitarau hori guztia Gipuzkoa Naturaldiaren egoitzen lankidetzarekin eskaintzen da –Azpeitia, Eibar, Errenteria, Tolosa eta Zumarragako udalak; Euskal Kostaldeko Geoparkea; Oñatiko Natura Eskola; eta Donostiako Aquariuma–. Babeslea, berriz, Trienekens da. Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei II. Erakustaldi hau posible izan dadin egindako lanagatik.

Espero dut zuen gustukoa izatea, eta lagungarri gertatzea estimu, begirune eta maitasun jarrerak sor daitezen gure ingurune naturalarenganako.

José Ignacio Asensio Bazterra

INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA
DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

Gnat Zinema 2022

Gnaturaldia Zinema

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Cine y Naturaleza es un binomio que funciona muy bien. El medio cinematográfico permite al espectador observar aspectos de la naturaleza casi imposibles de ver en su vida real y conocer íntimamente animales, plantas y ecosistemas. También puede enseñarnos la realidad de comunidades humanas y biológicas que sufren a causa de la degradación del medio en el que habitan. Todo ello convierte el formato cinematográfico en uno de los medios preferidos de Gipuzkoa Naturaldia, hasta el punto de que este elemento constituye ya una de sus señas de identidad.

Queremos ahondar en este camino, brindando a la ciudadanía de Gipuzkoa la oportunidad de ver algunas de las mejores producciones de cine documental en la **II Muestra de Cine de Naturaleza y Medio Ambiente**. A lo largo de dos intensas semanas, en 17 sesiones repartidas en nuestras ocho sedes, se proyectarán 10 producciones, acompañadas de presentaciones.

Todo este programa es ofrecido en colaboración con las sedes de Gipuzkoa Naturaldia —los ayuntamientos de Azpeitia, Eibar, Errenteria, Tolosa y Zumarraga, el Geoparque de la Costa Vasca, Oñatiko Natur Eskola y Aquarium Donostia/San Sebastián— y nuestro patrocinador, Trienekens. Quiero agradecer a todos ellos su contribución para que esta II Muestra haya sido posible.

Espero que sea de vuestro agrado y contribuya a generar actitudes de aprecio, respeto y amor hacia nuestro entorno natural.

Gnat Zinema 2022

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gnaturaldia Zinema

II. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

II MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

Naturarekin lotutako ikus-entzunezko edukiak, eta, bereziki, pertsonek naturarekin duten harremana islatzen dutenak pertsonok naturarekin ditugun harremanetan sakontzeko.

Contenidos audiovisuales relacionados con la naturaleza y en especial, aquellos en los que se refleja la relación de las personas con ella para ahondar en profundidad en las relaciones que las personas mantenemos con la naturaleza.

8
EGUN
DÍAS

MAIATZA
MAYO
10-20

9
UDALERRI
MUNICIPIOS

AZPEITIA
DONOSTIA
EIBAR
ERRENTERIA
MUTRIKU
OÑATI
TOLOSA
ZUMAIA
ZUMARRAGA

4
PRISMA
PRISMAS

10
FILM
PELÍCULAS

Mama
Salvajes
Animal
Panteras
Lo que el Pulpo me Enseñó
The Magnitude of All Things
De Quijotes y Semillas
Journey to Utopia
Urak aske
La Vida Secreta de los Árboles

PERTSONAK ETA ANIMALIAK
DE PERSONAS Y ANIMALES







KLIMA ALDAKETAREKIN BIZITZEN
CONVIVIENDO CON EL CAMBIO CLIMÁTICO

BIZITZA JASANGARRIAGO BATERANTZ
HACIA UNA VIDA MÁS SOSTENIBLE

BIRNATURALIZATZEN
RENATURALIZANDO

MAIATZA MAYO 10-20/ 19:00

SAIO GUZTIAK
TODAS LAS SESIONES

10 ASTR/MA

IREKIERA
APERTURA

DONOSTIA
VICTORIA EUGENIA
Mama

11 ASTZ/MI



TOLOSA
LEIDOR
Salvajes

OÑATI
ZINEMA
Urak aske

ZUMARRAGA
ZELAI ARIZTI
La Vida Secreta de los Árboles

12 OSTG/JU



AZPEITIA
SOREASU
Panteras



EIBAR
COLISEO
Lo que el Pulpo me Enseñó

MUTRIKU
ZABIEL KULTUR ETXEA
La Vida Secreta de los Árboles

13 OSTR/VI

DONOSTIA
AQUARIUM
The Magnitude of All Things

17 ASTR/MA

DONOSTIA
AQUARIUM
De Quijotes y Semillas

ERRENTERIA
NIESSEN
La Vida Secreta de los Árboles

PRISMAK
PRISMAS

PERTSONAK ETA ANIMALIAK
DE PERSONAS Y ANIMALES

KLIMA ALDAKETAREKIN BIZITZEN
CONVIVIENDO CON EL CAMBIO CLIMÁTICO

BIZITZA JASANGARRIAGO BATERANTZ
HACIA UNA VIDA MÁS SOSTENIBLE

BIRNATURALIZATZEN
RENATURALIZANDO

18 ASTZ/MI	19 OSTG/JU	20 OSTR/VI
ZUMARRAGA ZELAI ARIZTI ***Panteras***	**EIBAR** COLISEO ***The Magnitude of All Things***	**TOLOSA** TOPIC ***Animal*** **AMAIERA** CLAUSURA
OÑATI ZINEMA ***Journey to Utopia***	**ERRENTERIA** NIESSEN ***De Quijotes y Semillas***	
AZPEITIA SOREASU ***La Vida Secreta de los Árboles***	**ZUMAIA** AITA MARI ANTZOKIA ***Urak aske***	

SARRERAK
ENTRADAS

II. Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldiko saio guztietarako sarrerak DOAKOAK izango dira.

Las entradas para todas las sesiones de la II Muestra de Cine de Naturaleza y Medio Ambiente de Gipuzkoa, Gnat Zinema 2022 serán GRATUITAS.

Lortu zure sarrera
Consigue tu entrada

- **Sede bakoitzeko ohiko moduak erabiliz.** Utilizando los cauces habituales de cada sede.
- **Esteka hau erabiliz, saio bakoitzeko sarrerak nola lortu adierazten da bertan:** A través de este enlace, con información específica de cómo obtener las entradas de cada sesión:

https://gip.eus/sarrerak



PERTSONAK ETA ANIMALIAK / DE PERSONAS Y ANIMALES

Paisaia bortizki arriskutsu batean, santutegia da ondasun preziatuena, bai besteak sendatzeko bai norbera sendatzeko. Mama Zawadik eta bere «kumetxoek», umezurtz gelditu diren txinpantze kumeek, beren santutegi propioa aurkitu dute, elkarrekin, Lwiroko Primateen Errehabilitazio Zentroan; bertan, maitasunik zintzoena da gerrako zauriak sendatzeko lehen urratsa.

En un paisaje brutalmente peligroso, el santuario se convierte en el bien más preciado, tanto para curar como para ser curado. Mama Zawadi y sus "bebés", bebés chimpancés huérfanos traumatizados por la violencia que amenaza su extinción, encuentran su propio santuario juntos en el Centro de Rehabilitación de Primates de Lwiro, donde el amor incondicional es el primer paso para curar las heridas de la guerra.

PREMIOS GOYA 2022 **2022 Goya Saria film-labur dokumental onenari**
Premio Goya 2022 al mejor cortometraje documental

Mama

(29 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Hainbat, gaztelaniako azpitituluekin.
Varios, con subtítulos en castellano.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Salon Indien Films, Quexito Films, Filmakers Monkeys, Media Attack, Kinetoscopio Films, See-Through Films

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Pablo de la Chica

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Presentación
10	19:00	DONOSTIA	VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA	**Pablo de la Chica** *Zuzendaria / Director* **Lorena Aguirre, Itsaso Vélez del Burgo, Mama Zawadi** *Protagonistak / Protagonistas* **Centre de réhabilitation des primates de Lwiro** **Centre de sostien psicosocial Mutima** *Kongoko Errepublika Demokratikoa / República Democrática del Congo*



PERTSONAK ETA ANIMALIAK / DE PERSONAS Y ANIMALES

Urruneko mendiak, artzain bakartuak, eta animalia ikusezin bat babesteko erabaki irmoa hartu duen gobernu bat. Baina ez da erraza izango hiriko legeak ingurune landatarrean inposatzea. Espainiako iparraldean, abeltzain talde bat errebeldian deklaratu zen, eta autogobernuaren aldeko hautua egin zuten. Su gurutzatuaren erdian: argazkilariak, basozainak eta naturalistak. Western giroko Espainia bat, istorio frenetiko batean; sheriffa nor izango den, horren araberakoak izango dira morala eta kaltea.

Dokumental honek azken hamarkadetan Iberiar penintsulan egon den gatazka sozial bat erakusten du: gizakiaren eta otsoaren arteko gatazka.

Unas montañas lejanas, unos pastores aislados, y un gobierno decidido a proteger a un animal invisible. Pero imponer una ley urbana en un territorio rural no será sencillo. En el norte de España un grupo de ganaderos se declara en rebeldía y optan por el autogobierno. En medio del fuego cruzado: fotógrafos, guardas y naturalistas. “Salvajes” muestra la España más western en una frenética historia donde la moral y el daño dependen de quien sea el sheriff.

Este documental recoge el conflicto social de las últimas décadas entre el hombre y el lobo en la península ibérica.

Salvajes

(80 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe.
Castellano, sin subtítulos.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Nunatak producciones, Wanda Films

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Alex Galán

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Zumarragan Presentación en Zumarraga
11	19:00	TOLOSA	LEIDOR	**Alex Galán** *Zuzendaria / Director* **José María Morales** *Ekoizlea / Productor*

PERTSONAK ETA ANIMALIAK / DE PERSONAS Y ANIMALES

Klima aldaketari buruzko dokumentala. Bellak eta Vipulanek 16 urte dituzte. Klima aldaketaren ondorioz beren etorkizuna arriskuan dagoela uste duen belaunaldi batekoak dira. Egoeraz ohartarazten badute ere, ez dirudi ezer aldatzen denik. Beraz, arazoaren jatorrira jotzea erabaki dute: mundu biziarekin dugun harremanera. Aparteko bidaia batean, gainerako espezieekin oso lotuta gaudela ulertuko dute. Eta ulertuko dute, halaber, horiek salbatzerakoan, gure burua salbatzea ere lortuko dugula.

Documental sobre el cambio climático. Bella y Vipulan tienen 16 años. Pertenecen a una generación convencida de que su futuro está amenazado debido al cambio climático. Por más que alertan sobre la situación, nada parece cambiar realmente. Así que deciden llegar al origen del problema: nuestra relación con el mundo vivo. A lo largo de un viaje extraordinario, comprenderán que estamos profundamente ligados a las demás especies. Y que, al salvarlas, lograremos salvarnos nosotros también.

Animal

(105 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Ingelesa eta frantzesa, gaztelaniazko azpitituluekin.
Inglés y francés, con subtítulos en castellano.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Agence CAPA

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Cyril Dion

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Presentación
20	19:00	TOLOSA	TOPIC	**Mikel Izurieta, Jon Kareaga** *Gipuzkoako ekintzaileak / Activistas de Gipuzkoa*



PERTSONAK ETA ANIMALIAK / DE PERSONAS Y ANIMALES

Lau urteko abentura bat erakusten digu, non Andoni Canela eta bere seme Unai munduan zehar dabiltzan, gure planetan oraindik aske bizi diren felino handien bila; abentura horretan, aita-semeekin batera, protagonistak dira Mato Grossoko jaguarra, Kalahariko gepardoa, Rajastango tigrea, Patagoniako puma, Yalako lehoinabarra, Sierra Morenako katamotz iberiarra eta Masai Marako lehoia. Bidaia hainbat urtez luzatzen da, eta goi mendien artean amaitzen da, ezkutuko leku batean, non Andoni eta Unai Canela animalia ospetsu bezain iheskor bat aurkitzen saiatuko baitira: Himalayako elurretako lehoinabarra.

Esta película recoge una aventura de cuatro años en la que Andoni Canela y su hijo Unai recorren el mundo en busca de los grandes felinos en libertad que aún habitan nuestro planeta; una aventura en la que padre e hijo comparten protagonismo con el jaguar de Mato Grosso, el guepardo del Kalahari, el tigre de Rajastán, el puma de la Patagonia, el leopardo de Yala, el lince ibérico de Sierra Morena y el león de Masái Mara. La travesía se alarga durante varios años y culmina en una zona recóndita, entre altas montañas, donde Andoni y Unai Canela tratan de encontrar al legendario y esquivo leopardo de las nieves en el Himalaya.

Panteras

(99 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe
Castellano, sin subtítulos.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Wanda Films

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Andoni Canela

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Zumarragan Presentación en Zumarraga
12	19:00	AZPEITIA	SOREASU	Andoni Canela *Zuzendaria / Director*
18		ZUMARRAGA	ZELAI ARIZTI	



PERTSONAK ETA ANIMALIAK / DE PERSONAS Y ANIMALES

Ustekabean, adiskidetasun bitxi bat sortuko da zinemagile baten eta olagarro baten artean. Olagarroak bere munduaren misterioak erakutsiko dizkio, eta zinemagileak ikasi egingo du.

Un cineasta forja una amistad inusual con un pulpo que vive en un bosque de algas en Sudáfrica y aprende mientras el animal comparte los misterios de su mundo.

Lo que el Pulpo me Enseñó *(85 min)*

HIZKUNTZA IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe.
Castellano, sin subtítulos.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Craig Goster

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Peppa Ehrlich

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar
12	19:00	EIBAR	COLISEO

KLIMA ALDAKETAREKIN BIZITZEN / CONVIVIENDO CON EL CAMBIO CLIMÁTICO

Jennifer Abbottek, film honetako zuzendariak, bere ahizpa galdu zuen, minbiziaren ondorioz. Horrek sortu zion minak klima aldaketaren larritasunaz jabearazi zuen, eta paralelismo estuak ikusi zituen minaren esperientzien artean, esperientzia horiek pertsonalak izan nahiz planetarioak izan. Klima aldaketaren lehen lerroko istorioek bat egiten dute zinemagileak Ontarioko Georgian Bayn bizitako haurtzaroko oroitzapenekin. Zertan datoz bat istorio horiek?

Harrigarria bada ere, guztian.

Cuando la directora de esta película, Jennifer Abbott, perdió a su hermana a causa del cáncer, su dolor la abrió a la profunda gravedad del cambio climático, estableciendo paralelismos íntimos entre las experiencias de dolor, tanto personales como planetarias. Las historias de la primera línea del cambio climático se fusionan con los recuerdos de la infancia del cineasta en la Georgian Bay de Ontario. ¿Qué tienen en común estas historias?

La respuesta, sorprendentemente, es todo.

The Magnitude of All Things *(86 min)*

HIZKUNTZA IDIOMA
Donostia: Ingelesa, azpitituluak euskaraz. / Inglés, con subtítulos en euskara. **Eibar:** Ingelesa, azpitituluak gaztelaniaz. / Inglés, con subtítulos en castellano.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Flying Eye Productions, Cedar Island Films

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Jennifer Abbot

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Presentación
13	19:00	DONOSTIA	AQUARIUM	Laura Vozmediano *Ingurumen psikologian aditua /* *Experta en psicología ambiental*
19		EIBAR	COLISEO	



BIZITZA JASANGARRIAGO BATERANTZ / HACIA UNA VIDA MÁS SOSTENIBLE

Santi Cordón sukaldariak bidaia bat egin zuen 'barazkikletan', bere jaioterritik Malagako Zinemaldira, azken baratzezainei buruzko dokumental bat aurkezteko. 900 kilometroko bidaia jasangarri horretan, Alberto Marín Malagako permakultoreak laguntzen dio. Bidaldi horretatik roadmovie bitxi bat sortzen da, eta, bertan, protagonistek, kapareak bailiran, baratze bat landatzen dute bizikleta baten gainean, bizikleta bera zamari bihurtuz. Zaldunen abentura honetan ahaztutako Espainia gurutzatzen dute, azken kixoteen borroka erromantikoa entzuteko, haziak trukatzeko eta desagertzeko bidean dagoen sukaldaritzako altxor bati balioa emateko.

El cocinero Santi Cordón realiza un viaje en 'verducleta' desde su Tudela natal hasta el Festival de Málaga, para presentar un documental sobre los últimos hortelanos. En este viaje sostenible de 900 kilómetros le acompaña el permacultor malagueño Alberto Marín. Fruto de este periplo surge una jocosa roadmovie en la que sus hidalgos protagonistas plantan una huerta sobre una bicicleta haciendo de ella su rocín. Esta caballerosa aventura es una humilde incursión a la España olvidada para escuchar la romántica lucha de sus últimos quijotes, intercambiar semillas con ellos y poner en valor un tesoro culinario en vías de extinción.

De Quijotes y Semillas

(87 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe.
Castellano, sin subtítulos.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Ultreia Films

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Patxi Uriz

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Donostian Presentación en San Sebastián
17	19:00	DONOSTIA	AQUARIUM	Patxi Uriz *Zuzendaria / Director*
19	19:00	ERRENTERIA	NIESSEN	

BIZITZA JASANGARRIAGO BATERANTZ / HACIA UNA VIDA MÁS SOSTENIBLE

Familia eskandinaviar batek guztia emango du klima aldaketaren aurkako borrokaren alde. Baina bizimodu berri horretan, nekazaritza kolektibo jasangarri batean, askotariko erronkak aurkituko dituzte. Film hunkigarri eta benetan zintzoa, familia batek gure gizarteak aurrean duen erronkarik handienaren aurrean benetako ezberdintasun bat markatzeko egiten duen ahaleginari buruz.

Una familia nórdica decide apostarlo todo a su lucha contra el cambio climático. Pero la elección de una nueva vida en un colectivo agrícola sostenible no estará exenta de desafíos. Una película conmovedora y brutalmente honesta sobre el intento de una familia de marcar una diferencia real ante el mayor reto al que se enfrenta nuestra sociedad.

Journey to Utopia

(87 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Hainbat, azpitituluak euskaraz.
Varios, con subtítulos en euskera.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Film I Väst, Indie Film,
Magic Hour Films ApS, Vilda Bomben Film

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Erlend Eirik Mo

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar
18	19:00	OÑATI	ZINEMA

BIRNATURALIZATZEN / RENATURALIZANDO

Urtegi batetik bi milioi metro kubiko ur hustea, desagertzeko zorian dagoen animalia txiki bat babesteko. Hori izan da Enobietako urtegia kentzeko lan egin dutenen ahalegina. Eta ametsa beteta, muturluze piriniotarrari babesleku seguru bat eman diote. Artikutzan gertatu da istorio harrigarri hori, duela mende bat Donostiak Nafarroan erositako finkan. Gaur egun, Kantauri kostaldeko baso natural onenetako bat han dago.

Normandian, aldi berean, Vezinseko presa handia kendu dute. Hura kentzeko arrazoia Sélune ibaia izokinari zabaltzea izan da. Ibaietan utzitako hormatzarrek oztopo bat jartzen diote biodibertsitateari, eta horiek eraisteak etorkizunean bizigarriagoa izango den planeta bat irudikatzeko aukera ematen digu. Etorkizun hori Vezinsekoa eta Enobietakoa bezalako keinu txikien, edo handien, araberakoa izango da.

Drenaje de dos millones de metros cúbicos de agua de un depósito para proteger a un pequeño animal en peligro de extinción. Ese ha sido el esfuerzo de quienes han trabajado para sacar el Embalse de Enobieta. Y cumplidos en un sueño, han dado un refugio seguro al extremista pirenaico. Esta asombrosa historia tuvo lugar en Artikutza, en una propiedad comprada por San Sebastián en Navarra hace un siglo. Hoy alberga uno de los mejores bosques naturales de la costa cantábrica.

En Normandía, al mismo tiempo, se ha eliminado la gran presa de Vezins. El motivo de su eliminación fue extender el río Sélune al salmón. Los muros que quedan en los ríos ponen una barrera a la biodiversidad y su demolición nos permite imaginar un planeta más habitable en el futuro. Este futuro dependerá de pequeños -o grandes- gestos como Vezins y Enobieta.

Urak aske

(74 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Hainbat, azpitituluak euskaraz.
Varios, con subtítulos en euskera

EKOIZLEA PRODUCTORA
Pixel, Elhuyar

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Hainbat / Varios

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Presentación
11	19:00	OÑATI	ZINEMA	Miren Atristain *EHU, Erreken Ekologia taldeko ikerlaria / UPV, investigadora del grupo de Ecología de Arroyos.*
19		ZUMAIA	AITA MARI ANTZOKIA	

La Vida Secreta de los Árboles

(101 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe.
Castellano, sin subtítulos.

EKOIZLEA PRODUCTORA
Constantin Filme

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Jörg Adolph

BIRNATURALIZATZEN / RENATURALIZANDO

Peter Wohlleben basozainak «Zuhaitzen bizitza sekretua» liburua argitaratu zuen 2015ean, eta salmenta arrakasta itzela lortu zuen: ordura arte inork ez zuen horrela idatzi Alemaniako basoez. Wohllebenek modu entretenigarri eta argigarrian hitz egiten digu zuhaitzen elkartasunari eta kohesioari buruz, eta gero eta ugariagoa den irakurle komunitatearen baru-barruan jotzen du: basoan barrena egindako bisitaldietan, bertan bizi diren izaki bizidun harrigarri horietara hurbiltzen gaitu. Wohlleben Suediara joaten da munduko zuhaitzik zaharrena ikustera; Vancouverren negozioak bisitatzen ditu, basoak tratatzeko ikuspegi berrien bila; manifestarien alde jartzen da Hambacher Forsten. Badaki gizakiok basoak osasuntsu badaude bakarrik biziraun dezakegula, eta gure azken aukeraren aurrean gaude...

Cuando Peter Wohlleben publicó su libro "La vida oculta de los árboles" en 2015, irrumpió en todas las listas de éxitos de ventas de la noche a la mañana: nadie había escrito antes sobre los bosques alemanes como el forestal de la parroquia de Wershofen. Wohlleben nos cuenta de una manera entretenida y esclarecedora sobre la solidaridad y la cohesión de los árboles y toca la fibra sensible de su creciente comunidad de lectores: nos acerca a estas asombrosas entidades vivientes en visitas guiadas por el bosque. Wohlleben viaja a Suecia para ver el árbol más antiguo del mundo; visita negocios en Vancouver que buscan un nuevo enfoque sobre cómo tratar los bosques; se pone del lado de los manifestantes en Hambacher Forst. Sabe que los humanos solo podemos sobrevivir si los bosques están sanos, y estamos ante nuestra última oportunidad...

Maiatza Mayo	Ordua Hora	Udalerria Municipio	Lekua Lugar	Aurkezpena Presentación
11	19:00	ZUMARRAGA	ZELAI ARIZTI	**Errenteria:** Alberto Castro *ARANZADI, biologoa, entolomologian aditua / ARANZADI, biólogo, experto en entomología.* **Azpeitia:** Iñaki Aizpuru *NATURTZAINDIA, biologoa, botanikan aditua / NATURTZAINDIA, biólogo, experto en botánica.*
12		MUTRIKU	ZABIEL KULTUR ETXEA	
17		ERRENTERIA	NIESSEN	
18		AZPEITIA	SOREASU	

Zinema emanaldiak ikasleentzat
Sesiones para escolares

Aurtengo edizioaren baitan, GnatZinemako sede diren udalerrietako DBH 1. eta 2. mailako ikasleentzat naturari buruzko zinema emanaldiak antolatu ditugu, Udalarekin elkarlanean.

En el marco de la edición de este año se han organizado, en colaboración con los Ayuntamientos, proyecciones de cine sobre la naturaleza dirigidas al alumnado de 1º y 2º de la ESO de los municipios que son sede de GnatZinema.

Datuak/Datos

12 IKASTETXE CENTROS ESCOLARES

1.084 IKASLE ALUMN@S

Natura Bizia

(55 min)

HIZKUNTZA IDIOMA
Euskara
Euskera

EKOIZLEA PRODUCTORA
Avis Productions Nature Films, S.L

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Lexeia Larrañaga, Alexander Gutierrez

Iberiar Penintsulako iparraldean bi eskualdek aukera paregabeak eskainiko dizkigute. Euskadi eta Nafarroa, Europa mailan biodibertsitate ehuneko handia duten bi lurralde dira. Natura Bizian, hobekien kontserbatutako txokoak, biodibertsitate ikusgarriena eta egoera basatienean dagoen animalia fauna ezagutaraziko ditugu. Labar bertikalak, itsaso amaigabea, magiaz betetako basoak eta kareharrizko mendi erraldoiak; horiekin guztiekin bizipen ahaztezinak izango ditugu.

Saioen aurretik, izena emandako ikastetxeetara aurrez gelan landu ahal izateko dokumentua bidaliko da. Zineko emanaldietan, filmaren zuzendarien parte hartzea izango da, haiekin solas egiteko aukera izango dutelarik ikasle eta irakasleek.

SAIOEN EGUTEGIA
2022 Maiatza

Maiatza / Mayo	Udalerria / Municipio	Lekua / Lugar
11	AZPEITIA	SOREASU
13	ERRENTERIA	NIESSEN
17	EIBAR	COLISEO
18	EIBAR	COLISEO
18	TOLOSA	LEIDOR
19	ZUMARRAGA	ZELAI ARIZTI

Maiatzak 22, igandea
22 de mayo, domingo

Ordutegia/Horario:
09:30-13:45
Hondarribia

Irteera/Salida:
Faro Higuer

TRIENEKENS PLOGGING RUN FAMILIENTZAT

Higer itsasargitik abiatuta, bidean zaborra biltzeko familia-ibilbide hau, 3 km ingurukoa, une ezin hobea da familiako ibilaldi natural bat egiteko eta inguruneaz eta gure hondakinen kudeaketarekin praxi txarra izateko arriskuaz jabetzeko.

Gainera, jarduera honek ongintzazko helburua du, eta, beraz, inskripzioarekin bildutakoa Coopera Congo GKEri emango zaio. GKE honek Lwiroko Primateak Birgaitzeko Zentroa kudeatzen du. Zentro horren arduradunak eta zaintzaileak dira, hain zuzen ere, GnatZinema 2022ren irekiera dokumentalaren protagonistak, MAMA.

Ibilaldiaren aurretik jolasak, birziklatzeari buruzko zozketak eta aurre- beroketa egiteko zunba saioa izango dira.

Plogginga amaitzean, aperitibo bat egongo da parte-hartzaile guztientzat, eta bildutako zaborra pisatu egingo da.

TRIENEKENS PLOGGIN RUN FAMILIAR

Con salida desde el Faro Higer, este recorrido familiar de recogida de basuras en el camino, de aproximadamente 3 km, es un momento perfecto para un paseo natural familiar y tomar conciencia del entorno y los riesgos de una mala praxis con la gestión de nuestros residuos.

Además, esta actividad tiene un fin benéfico, por lo que lo recaudado con la inscripción se donará a la ONG Coopera Congo. Esta ONG gestiona el Centro de Rehabilitación de Primates de Lwiro, centro cuyas responsables y cuidadoras son las protagonistas del documental de apertura de GnatZinema 2022, MAMA.

Antes del recorrido habrá juegos, sorteos sobre el reciclaje y una clase de zumba que servirá de precalentamiento.

Al finalizar el plogging habrá un aperitivo para todos los participantes y se realizará el pesaje de la basura recogida.

Egitaraua / Programa:

9:30	Familiaren poltsa jasotzea Recogida de bolsa familiar
10:00	Partehartzaileei ongi-etorria Bienvenida a los participantes
10:30	Hondakinei buruzko galdera jokua, sariekin Juego de preguntas sobre residuos con premio
10:45	Aurre-beroketa egiteko zunba saioa Sesión de zumba de precalentamiento
11:00	Familia ibilaldiaren hasiera Inicio de la marcha familiar
12:30	Ibilaldiaren itxiera Cierre de la marcha
13:00	Partehartzaileentzako janaurrekoa Aperitivo para todos los participantes

Izen-ematea / dohaintzak:
Precio de inscripción / donaciones:

(incluyendo donación ONG Coopera Congo) **5€**

Plogging Run

Gnaturaldia Zinema

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

EGOITZA LAGUNTZAILEAK
SEDES COLABORADORAS

azpeitikoudala denon artean

EIBARKO UDALA

ZUMAIAKO UDALA

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

TOLOSA

Oñatiko NaturEskola

ERRENTERIA UDALA

DONOSTIA SAN SEBASTIAN
AQVARIVM

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

Trienekens

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro